

TXORIERRIKO ENPRESA-SAREAREN TALENTUA ETA ENPLEGUA DIAGNOSTIKATZEKO BULTZADA

Posted on 25/06/2026 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Eskualde garapena](#), [Talentua eta enplegua](#), [Txorierri](#)

EGAZ Txorierrik eskualdeko hamabost bat enpresa bildu ditu lan-saio kolaboratibo batean, talentua, prestakuntza eta enpleguaren alorreko erronka eta aukera nagusiak identifikatzeko. Topaketa **Txorierriko Enplegu eta Tokiko Garapen Planaren** etorkizuneko elaborazio-prozesuaren parte da, eta NAIDER-ek laguntza teknikoa eskaintzen ari da bertan.

Saioan, enpresen ordezkariak beren esperientziak eta beharrak partekatu zituzten **talentua erakarri eta fideltzearen, prestakuntzaren, belaunaldi-erreleboaren** eta lan-merkatuaren eraldaketetara egokitzearen inguruan. Jasotako ekarpenek enpresa-sarearen lehentasunak lehen eskutik ezagutzeko aukera emango dute, eta eskualdearen errealitatearekin lerrokatutako ekintzak definitzen lagunduko dute.

Topaketa hau EGAZ Txorierrik bulkadatutako dinamizazio-prozesu zabalago batean txertatzen da, **saio parte-hartzaileak eta elkarrizketa indibidualak** uztartzen dituen enpresa-lagin zabal batekin. Helburua da **diagnostiko sendo bat** izatea, enpleguari, enpresa-lehiakortasunari eta tokiko garapenari begirako politika eta ekintzen diseinurako oinarri gisa.

NAIDERretik prozesu honetan laguntzen ari gara **metodologia, analisi eta dinamizazioa** eskainiz, enpresen ezagutzatik abiatutako proposamen zehatzak sortzeko, lurraldeak gaur eta biharko lan-merkatuaren erronkei erantzuteko duen gaitasuna indartu dezan.





